

2020KO MAIATZAREN 27AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO OTSAILAREN 11KO ETA MARTXOAREN 3KO BILKUREN AKTAK). .

2.- 2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

3.- 2020KO UDAL AURREKONTUAREN 2/2020 KREDITU ALDAKETA.

4.- COVID-19AK ERAGINDAKO KALTEAK ARINTZEKO LAGUNTZAK BANATZEARI ETA BESTELAKO NEURRIEI BURUZKO ERABAKIA.

5.- FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALAREN BIDEZ ARGINDAR ELEKTRIKOA HORNITZEKO KONTRATUA BIDERATZEA.

6.- MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN FAKTURAK.

7.- GOI TENTSIOKO LINEARIK EZ PLATAFORMARI ATXIKITZEKO AKORDIOA.

8.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

9.- GALDE-ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

Bilkurari hasiera eman baino lehen, Alkateak, gai zerrendan agertzen ez den honako gai hauek eztabaidatzea proposatzen du:

- UDALEN FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI BURUZKO MOZIOAK.
- 2021EKO TOKIKO JAI EGUNA FINKATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Proposamenaren izaerak ikusi eta hau eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez erabakitzen du gaia bilkura honetan eztabaidatzea.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO OTSAILAREN 11KO ETA MARTXOAREN 3KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2020ko otsailaren otsailaren 11 eta martxoaren 3ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- 2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Alkate-Lehendakariak 2020ko martxoaren 23ko 08/0320 Alkatetza Dekretuaren berri eman du, hitzez hitz honako hau delarik:

“ Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen.- Udal honen 2019(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n:		488.876,46
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		451.162,27
Aurrekontuko zordunak :	442.771,92	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	8.390,35	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		295.697,95
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	239.647,55	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	56.050,40	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		644.340,78
5.- Saldo kobragaitzak:		27.697,68
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		616.643,10

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-92.994,12
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-3.613,19
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		220.408,95
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):		123.801,64

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		280.651,73
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		164.765,58
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):		445.417,31

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Espedientean jasotakoaren arabera, Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2019. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta dago, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, Beraz1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu-hartzaileak berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, egintza honekin udalbatzarrari jakinarazten zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Era berean, espedientean jasotzen den finantza iraunkortasunaren azterketa eta ebaluaketaren komunikazioaren berri ematen da.

Udalbatzarrak, erabakiaren berri jasotzen du.

3.- 2020KO UDAL AURREKONTUAREN 2/2020 KREDITU ALDAKETA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	21.334,23
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	12.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	17.500,00

KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA	50.834,23
------------------------------------	------------------

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	50.834,23
GUZTIRA		50.834,23

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

4.- COVID-19AK ERAGINDAKO KALTEAK ARINTZEKO LAGUNTZAK BANATZEARI ETA BESTELAKO NEURRIEI BURUZKO ERABAKIA.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaritzen da, Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko. Errege-dekretu horretan bildutako neurriek txikizkako lokal eta establezimenduak jendearentzat irekitzeko etenaldia ezartzen dute, eta eteten dute, halaber, errege-dekretu horretan behar-beharrezkotzat jotzen ez diren jardueren garapena. Neurri horien ondorioz, norberaren konturako langile askok edo enpresek eten behar izan dute beren jarduera.

Bada, Zegamako Udalak, lagundu nahi du negozioak aldi baterako ixteak zuzenean eragindako galera ekonomikoa arintzen, eta, ahal den neurrian, halako negozioak itxi beharra ekiditen.

Alde horretatik, azpimarratzekoa da udalerrri honetan sektorea ahula dela, eta, beraz, oso garrantzitsua da egoera honek gehiago ez ahultzea.

Programatzen diren laguntza ekonomikoak jardueraren gastuak finantzatzera eta, ahal den neurrian, diru-sarreraren galera arintzera bideratuta daude.

Ilido horretan, laguntza-programa hau Estatuko Administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazitakoen osagarria da.

Bereziki aipatu behar da Lanbideko zuzendari nagusiaren 2020ko apirilaren 8ko Ebazpena (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2020-04-15ekoa).

Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1 artikulua (25) eta 34) paragrafoetan udalei adierazitako eskumenak baliatuz.

Era berean, aipatu den legeak ematen dituen eskumenen arabera, eta Ogasun Batzordeak maiatzaren 19ko bilkuran proposatutakoaren arabera, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldetik etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena. Covid-19 coronabirusaren egoera eta bilakaerak eragindako egoerak arintzeko, txikizkako merkataritza establezimendu, ostalarientzako edo enpresentzako udal diru-laguntzak emateko urjentziazko deialdia egitea.

Deialdi hori Erabaki honen eranskin gisa jaso da.

Deialdia eta laguntza eskatzeko beharrezkoak diren gainontzeko dokumentuak, Udalaren web orrian (www.zegama.eus) daude erakusgai, albisteak atalean.

Bigarrena. Deialdi horri aurre egiteko 2020. ekitaldiko udal aurrekontuan dagokion gastua baimentzea, Zegamako Udaleko aurrekontuaren baitan:

1 0000.481.01.920.00 2020 (12.000 €). COVID-19ARI AURRE EGITEKO LAGUNTZAK

Hirugarrena.- Egoeraren arabera, irailean beharbada, bestelako neurri edo laguntzak bideratu beharko direla adosten dute bilkurakideak.

Laugarrena.- Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, deialdia argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

ERANSKINA

Covid-19 coronavirusaren egoera eta bilakaerak eragindako egoerak arintzeko, txikizkako merkataritza establezimendu, ostalarientzako edo enpresentzako udal diru-laguntzak emateko urjentziazko deialdia.

1. Xedea eta diruz lagundu daitekeen epealdia.

Diru-laguntza deialdi honen xedea da, Covid-19 coronavirusaren egoera eta bilakaerak eragindako egoerak arintzea txikizkako merkataritza establezimendu, ostalariei edo enpresei dagokionean.

Horretarako, aldizkakotasun izaerarik gabeko diru-laguntzak emango dira.

Jarritako laguntza horiek larrialdi egoera bakoitzak sortutako gastuari zati batean aurre egitera bideratuko dira.

2. Laguntza ekonomikoen hasierako epea.

Diruz lagungarriak izango diren honako kontzeptuak Estatuko alarma egoeraren deklarazioaren ondoren hasiko dira.

3. Onuradunak.

1. Deialdi honetako laguntzen onuradun izango dira martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan alarma-egoeraren deklarazioaren eraginpean dauden

pertsonak, baldin eta haien jarduerak etenda geratu badira. Onuradunek, betiere, kolektibo hauetakoren batekoak izan behar dute:

- Txikizkako merkataritza establezimendu, ostalariei edo enpresei dagokionean (gehienez 10 langileko artekoak).

2. Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte, 2020ko martxoaren 14an:

- a) EAEn erroldatuta egotea.
- b) Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala ZEGAMAN egotea, eta lantokia ere ZEGAMAN kokatzea.
- c) Alta emanda egon beharko du (eta bere kasuan EJZn eta Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian).

Aurreko apartatuko betekizunak alarma-egoerak irauten duen bitartean bete beharko dira, bai eta, gutxienez, egoera hori amaitu ondoko lau hilabeteetan ere.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dituzte.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, diru-laguntza eman eta hura ordaindu baino lehen. Hala ere, eskatzaileak berriaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

e) Zegamako Udalarekin inolako zorrik ez izatea.

f) Ez egotea diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. apartatuan aurreikusitako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokionez.

4. *Dirulaguntza.*

Gehieneko diru-laguntza 2.000,00 €-koa izango da

Diru laguntza honetara bideratutako aurrekontua, ez bada nahikoa, eskaera guztiei erantzuteko modu proportzionalan banatuko da.

5. *Diru-laguntzaren ordainketa.*

Diru-laguntza alarma-egoera amaitzean ordainduko da, baina hileroko konturako laguntzak eman ahal izango dira. Nolanahi ere, data horren aurretik laguntzak banatu ahal izango dira justifikatzen diren egoerak kontuan hartuta.

6. *Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak egiteko epea.*

Diru-laguntza eskaerarekin batera atxikitu behar den dokumentazioa ondoren datorrena izango da:

Diru-laguntza eskaera Udalaren erregistro orokorrean eta bere web orrian argitaratu den eredia erabiliz egin beharko da.

Eskaerarekin batera, aurkeztu beharko dira:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Alta historikoa.
- Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta (bere kasuan).
- Errolda-ziurtagiria, Zegama udalerrikoa ez bada.
- Arduradun adierazpena:

- a) Jarduera ekonomikoa etenda egon den aldia.
- b) ZEGAMAko udalerrian duen negozioari alarma-egoera amaitu eta gutxienez lau hilabeteko epean, jarraipena emateko ahalegina.
- c) Ez egotea dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. apartatuan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokionez.

7. Eskariak aurkezteko epea.

Eskabideak deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaleko web gunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 15 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dira.

* Gauzatzea eta proposamena.

Udalaren Idazkari-kontuhartzailearen Sailari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen instrukzioa egitea, eta ebazpen-proposamena prestatuko du.

* Ebazpena: Alkatetzak.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesatuei edota erakunde interesatuei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 41.1 artikulua araberak; betiere emandako diru laguntzak Udalaren webgunean argitaratzeko aukera baztertu gabe.

Laguntza lerro hau bateragarria izango da beste Administrazioak martxan jarri ditzaketan laguntzekin baino ezingo da Covid-19aren ondorioz sortutako galera ekonomikoa baino gehiago jaso. Halakorik gertatuz gero, dirulaguntzen araudiak aurreikusten duen itzulera prozedura martxan jarriko da.

Emandako diru-laguntzaren ordainketa bakoitza banku-transferentzia bidez egingo da, erakunde edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

8. Araudi ezargarrira.

Bere oinarri arautzaileetan ezarrikoaz gain, laguntza hauek ZEGAMAko Udalaren diru-laguntzak arautzen duen udal-agintarauak eta Diru-laguntzen Araudi Orokorra arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautuko dituzte eta dagokion araudia.”

5.- FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALAREN BIDEZ ARGINDAR ELEKTRIKOA

HORNITZEKO KONTRATUA BIDERATZEA.

Zegamako Udalbatzarrak, 2011ko martxoaren 16an egin zuen bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralera atxikitze erabakia hartu zuen.

2019ko urriaren 25eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eskuratzeko Zentralizatuko Sistemaren barnean argindarrari buruzko esparru-akordioari atxikitzea erabaki zen.

Diputatuen Kontseiluaren 2019ko urriaren 22an jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2020ko apirilaren 28ko foru aginduaren bitartez, IBERDROLA CLIENTES S.A.U (IFZ.:A95758389) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez argindar elektrikoa hornitzeko esparru akordioa (X19033) burutzea erabaki zen.

Zegamako Udal honi dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin araberak, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa sinatu ondoren, proposatzen da hornikuntza elektrikoko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen hornidura zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 58.210,00 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, SPKLTban jasotakoari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA CLIENTES S.A.U (IFZ.:A95758389) enpresari esleitzea, sinatutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Udalbatzarrak, eratorritako zortzi kideen aldeko botoekin, honako hau erabakitzen du:

LEHENENGO.- Esleitzea "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez energia elektrikoa hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X19033) IBERDROLA CLIENTES S.A.U (IFZ.:A95758389) enpresari, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARRENA.- Kontratua indarrean sartuko da 2020ko ekainaren 1etik aurrera.

HIRUGARRENA.- Baimentzea eta xedatzea IBERDROLA CLIENTES S.A.U (IFZ.:A95758389) enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, akordio honi buruzko espedientean jasotako kontusailen kargura.

1 0000.221.01.164.00 2020
1 0000.221.01.165.10 2020
1 0000.221.01.165.20 2020
1 0000.221.01.165.30 2020
1 0000.221.01.165.40 2020
1 0000.221.01.165.50 2020
1 0000.221.01.165.70 2020

1 0000.221.01.165.90 2020
1 0000.221.01.165.91 2020
1 0000.221.01.165.92 2020
1 0000.221.01.231.40 2020
1 0000.221.01.323.10 2020
1 0000.221.01.323.20 2020
1 0000.221.01.333.10 2020
1 0000.221.01.333.20 2020
1 0000.221.01.337.10 2020
1 0000.221.01.342.10 2020
1 0000.221.01.342.20 2020
1 0000.221.01.491.00 2020
1 0000.221.01.920.00 2020
1 0000.221.01.933.00 2020

6.- MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. DONEJAKUE BIDEKO PEREGRINO ETXEA EGITEKO LANEN FAKTURAK.

Alkateak, 2019ko uztailearen 1eko Ebazpenaren bidez (Udalbatzarrak 2019ko uztailearen 24an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez berretsia), MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. (IFK.-B-20986428) enpresari esleitu zion Donejakue Bideko Peregrino Etxearen lanak egiteko kontratua (1 atala: obra gehigarriak). Prezioa: 129.842,43 euro gehi 27.266,91 euro BEZ (%21), guztira 157.109,34 euro.

Lan hori burutzeagatik, Murgil Eraikuntzak S.L. enpresak, honako fakturak eta lan egiaztagiria aurkezten ditu:

- 007/2020 fk.zb. (5. Lan egiaztagiria): 21.095,03 euro BEZ barne.
- 013/2020 fk.zb. (6. Lan egiaztagiria): 12.058,35 euro BEZ barne.
- 016/2020 fk.zb. (7. Lan egiaztagiria): 18.620,39 euro BEZ barne. (Amaierakoa.)

Zentzu honetan, esleitutako aurrekontuaren arabera, 20.477,99 euroko igoera eman dela adierazten da, espedientean jasotakoaren arabera justifikatzen dena.

Hau ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldetik etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako fakturak onartzea.


Bigarrena.- Fakturaren gastua onartzea, 2020ko Aurrekontu Orokorraren 1. 0000.601.03.459.00 2019 eta 1. 0000.601.03.459.00 2020 aurrekontu sailei egotziz, eta

ordainketa bideratuz.

7.- GOI TENSIOKO LINEARIK EZ PLATAFORMARI ATXIKITZEKO AKORDIOA.

Espedientea ikusirik.

Alkateak jakinarazten du, Udal honetan honako idatzia aurkeztu dela bere eztabaida eta onarpenerako.



Era berean adierazten du, honako hau aurkeztu dela bere eztabaida eta onarpenerako:

UDALARAI AURKEZTEN ZAIOEN MOZIOA EZTABAIDARAKO ETA PLENOAN ONARTZEKO

Arrazioen azalpena

Azterketa Eremuan dauden Udaletan, Estatuko Ingurumen idazkaritzaren ingurumen ebaluazio orokorraren Ordezkariordeztatik, Trantsizio Ekologikoaren Ministeriotik, jakinarazpen bat jaso zen 2019ko udaberrian, "Itsasoko 400KW azpiestazio elektrikoan, joan etorriko 400KWko Linea, zirkuitu bikoitza, Castejon Muruarte eta Itsaso-Orkolen (Nafarroa, Euskal Autonomi Erkidegoa) 1 eta 2 linea elektrikoaren berrindartzea" proiektuari dagokion ingurumen inpaktuaren azterketak izango duen eragina eta sustatzailea Red Eléctrica de España S.A. da.

Proiektu hau zorretan zegoen eta aurreko biak ordezkatzera dator. Vitoria-Gasteiz/ Castejon-Muruartera zihoan lehen proiektua atzera bota zen, 2010eko azaroaren 12ko BOE 274an jasotzen den bezala, ingurumenari eragiten zizkion kalteagatik eta proiektu hark gizartean sortu zuen kontrako jarreragatik. Bigarren proiektua 2011ko abuztuan iritsi zen kaltetutako udaletara. 2011ko abenduaren 17an, Udal hautetsien Batzarrak Estatuko, Nafarroako eta Erkidegoko gobernuie eskatu zien, proiektua bertan behera uzteko, proiektuaren kaltea pairatuko luketen 220 udal eta kontzejuk onartutako mozioei oihartzun emanez. 2013ko maiatzaren 15ean, Industria eta Energia Ministerioari, garraio elektrikoaren azpiegitura berriak bertan behera uzteko eskatu zioten 174 alkatek eta uztailaren 19an, herritarrek, udalek eta kontzejuek sinatutako 14.000 alegazio aurkeztu ziren.

Horregatik, herritarren oposizioa sortu eta aurreko bi proiektuak bertan behera uztea ekarri zuten arrazoi berdinak, intentsitate berdinarekin edo handiagoarekin mantentzen dira, gaur egungoa kontsultara bideratzen ari den honetan. Proiektu honek lehenengo aldiz jasotzen du proiektua justifikatzeko arrazoi moduan, "Frantziara esportatzeko programa altuko agertokia".

Proiektu honek, pasatzen den lurraldeen hornikuntzan inolako justifikaziorik ez duenez eta Nafarroako eta Gipuzkoako lurralde zati bati oso modu negatiboan eragingo dio, paisaian, ingurumenean eta herritarren osasunean. Aldi berean ez da bateragarria lurralde antolamenduari eta kaltetutako herrien etorkizuneko garapen aurreikuspenekin eta gainera ehun produktiboan, turismoan eta lehen sektorean izugarritzko kaltea ekarriko du

Udal honek ONARTZEN du:

1º.-Gipuzkoako Itsasoko azpi-estazioa eta Nafarroako Castejon-Muruarte linearekin, Tafalla parean, lotu nahi dituen 400 KV Goi Tentsioko Linearen proiektuari erabateko desadostasuna azaltzea, gizartearen interes orokorrerako inolako justifikaziorik ez izateagatik.

2º.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Euskal Autonomiako Erkidegoko Gobernuari eta Legebiltzarrari eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, proiektuari ezezkua eman diezaloten eskatzea, paisaian, ekonomian eta ingurumenean izango dituen kalteengatik jasangaitza delako eta potentzialki kaltetutako herrietako gune gakoetan izango duen afekzioa kontuan hartuta

3º.-Akordio hau Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari eta Gipuzkoa Foru Aldundiari, Gipuzkoako Batzar Nagusiarri eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eta Legebiltzarrari bidaltzeaz gain komunikabideen bitartez publiko egitea.

Hauek ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH

bildu taldeetik etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitakoaren arabera, Goi-tentsioko Linearik Ez Plataformari atxikitzea, horiek dituen konpromisioak onartuz.

Bigarrena.- Adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako Itsasoko azpi-estazioa eta Nafarroako Castejon-Muruarte linearekin, Tafalla parean, lotu nahi dituen 400KV Goi Tentsioko Linearen proiektuari erabateko desadostasuna azaltzea, gizartearen interés orokorrerako inolako justifikaziorik ez izateagatik.

Zentzu horretan ere, adierazitako erakundeei eskatuko zaie proiektuari ezezkoa eman diezaiotela, paisaian, ekonomian eta ingurumenean izango dituen kalteengatik jasangaitza delako eta potentzialki kaltetutako herrietako gune gakoetan izango duen afekzioa kontuan hartuta.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

8.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 03/0320 erabakia, martxoaren 4koa, Kasinoa eta Ostatuaren alokairu fakturak onartuz.
- 04/0320 erabakia, martxoaren 4koa, ibilgailuen zirkulazio zergaren ordainketan borondatezko epean ordaindu gabeko zorraren %20ko likidazioa eginez epe exekutiboko errekarugatik.
- 05/0320 erabakia, martxoaren 4koa, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2020ko Errolda onartuz eta ordainketa epeak ezarriz.
- 06/0320 erabakia, martxoaren 13koa, COVID-19a dela eta zenbait neurri bideratuz.
- 07/0320 erabakia, martxoaren 16koa, COVID-19a dela eta zenbait neurri bideratuz.
- 08/0320 erabakia, martxoaren 23koa, 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartuz.
- 09/0320 erabakia, martxoaren 26koa, 8 zenbakidun fakturen erlazioa (martxo) onartuz, guztira 73.183,59 eurokoa.
- 010/0320 erabakia, martxoaren 30ekoa, GSRk egindako eskaera onartuz, fakturazioari dagokionez, Gipuzkoako Ogasuneko Gizarte Politiketako Departamentuaren irizpide edo jarraibide berdina mantentzea, hau da, Zegamako Udalak, GSRrekin mantentzen dituen bi kontratuen plazen erreserbari dagokion kopurua bere gain hartuz.

- 011/0320 erabakia, martxoaren 30ekoa, oroimen historikoaren lana bideratzeko diru-laguntza eskaera egitea onartuz.
- 012/0320 erabakia, martxoaren 30ekoa, Goilaser S.A. soldadura tailerra jartzeko espedientearen aldeko txostena eginez.
- 01/0420 erabakia, apirilaren 3koa, Telefonica enpresak Ondaraldea auzoan bizilagun bati zerbitzua emateko egindako eskaera onartuz.
- 02/0420 erabakia, apirilaren 8koa, 1/2020 aurrekontu aldaketa bideratzea onartuz. Kreditu txertaketak.
- 03/0420 erabakia, apirilaren 16koa, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren ordainketa epeak luzatuz.
- 04/0420 erabakia, apirilaren 17koa, 11 zenbakidun fakturen erlazioa (apirila) onartuz, guztira 95.078,15 eurokoa.
- 05/0420 erabakia, apirilaren 23koa, COVID-19ak eragindako alarma egoeran, udal zerga eta tasak ordaintzeko epeak etenda gelditzen direla adieraziz.
- 06/0420 erabakia, apirilaren 29koa, lursailak bereizteko baimena emanaz.
- 07/0420 erabakia, apirilaren 29koa, 13 zenbakidun fakturen erlazioa (apirila 2) onartuz, guztira 36.399,54 eurokoa.
- 08/0420 erabakia, apirilaren 30ekoa, udaleko ordenagailuak berritzeko esleipena egitea onartuz.
- 01/0520 erabakia, maiatzaren 6koa, asteroko azoka bideratzeko postu-saltzaile eta erabiltzaileei jakinarazi beharreko neurriak zehaztuz.
- 02/0520 erabakia, maiatzaren 6koa, Parketxe Sareari ekarpena bideratzea onartuz.
- 03/0520 erabakia, maiatzaren 6koa, 16 zenbakidun fakturen erlazioa (maiatza) onartuz, guztira 58.122,88 eurokoa.
- 04/0520 erabakia, maiatzaren 14koa, Criteria Caixa S.A.ri Ezpaleo baserriaren eremuan konponketak egin ditzan eskatuz.
- 05/0520 erabakia, maiatzaren 19koa, 2/2020 kreditu aldaketa bideratzea aginduz. Kreditu gehigarriak.
- 06/0520 erabakia, maiatzaren 20koa, uztailearen 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde deialdia dela eta, panelen kokalekuak eta hauteskunde ekitaldiak zehaztuz.

UDALEN FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI BURUZKO MOZIOAK.

Alkateak, adierazten du, Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), honako mozio-idatzia aurkeztu duela bere onarpenerako:

„Maiatzaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Aldundiak udalei egiten dien diru-banaketan % 20ko murrizketa aplikatzeko Diputatu Kontseiluaren aldebakarreko erabakia. Horrelako erabakiei buruz hitz egiteko toki beharko zukeen Gipuzkoako Finantzen Kontseilua hurrengo egunea bildu zen eta dagoneko hartuta zegoen erabakiaren berri emateko izan zen.

Udalak, herritarren beharretatik gertuen dauden erakundeak izateaz gain, lehen mailako erakundeak dira, Udal Legeak aitortzen duen bezala. Zentzu honetan, euskal erakundeen arteko diru-banaketan aldaketarik egon behar bada, erakunde guztien artean eztabaidatua eta adostua izan behar luke, aldeek informazioa modu gardenean partekatu ondoren eta inola ere ez aldebakarrez.

Zerbitzu publikoak garatzeko ezinbestekoa den finantzazioaz ari gara hizketan, udalen eguneroko kudeaketan eta herritarren bizitzan eragin zuzena duten erabaki politikoez. Horregatik, honako eskariak egiten dizkio Zegamako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari:

1. UFFFri buruzko elkarrizketaren aldeko apustu irmoa egitea.
2. Berraztertu dezala aldebakarrez hartutako erabakia eta udalekin elkarlanean adostasun bat bilatu dezala udalen egonkortasun finantzarioa ere helburu izango duena.
3. Elkarlana inoiz baino beharrezkoagoa dela sinetsita gaudenez Udalekin kobernanzarako foro bihur dezala Gipuzkoako Finantzen Kontseilua. Bertan informazioa partekatu dadila, proposamenak aztertu eta adostasunak lortu daitezen, ondoren Gipuzkoako udalen finantzaketari buruzko Foru Arauan beharrezko isla izan dezaten.

Zegamako Udalak erabaki honen berri emango dio Gipuzkoako Aldundiko Diputatu Nagusiari, Ogasun Diputatuari, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztiei eta EUDEleko Gipuzkoako eta EAeko zuzendaritzeari.“

Era berean adierazten du, Zegama Lantzen taldeko bozeramaile bezala, gai hau dela eta, honako mozio-idatzia aurkeztu duela:

“ Mozioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen arteko elkarrizketa-gune bat sortzeari buruz

Zioen azalpena:

Joan den maiatzaren 14an, Eudeleko Batzorde Exekutiboak proposamen bat egin zuen Foru Aldundiak eta lurralde historiko bakoitzeko Udalek osatutako elkarrizketa-gune edo Erakundearteko Mahai bat sortzeko eta artikulatzeko.

COVID-19ren pandemiaren ondorioz bizi dugun salbuespenezko egoerak euskal ogasunen diru-sarrera fiskalei zuzenean eragiten ari zaie, Euskadiko enpresetako eta familietako ekonomian duten eraginagatik.

Alarma-egoeran hartutako erabakiak eragin zuzena izan dute erakundeetako diru-sarrera fiskaletan, baita udaletxeetan ere; izan ere, zerga itunduetan duten partaidetzan ez ezik, haien ordenantza fiskaletako diru-sarreretan ere murrizketak izango dituzte, osasun-krisiak, krisi ekonomikoa eragin baitu.

Joan den 2020ko maiatzaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 3/2020 Foru Dekretu-Araua onartu zuen. Horren bidez, aldatu egin dira Udalak Finantzatzeko Foru Funtzak 2020an kontura egindako entregak, eta aurrekontu- eta zerga-arloko hainbat neurri ezarri dira, toki-erakundeek erabaki-modu handiagoa izan dezaten kreditu gehigarriak onartzean, bai eta COVID19ak eragindako egoerari aurre egiteko tasen hobariak egin ahal izateko ere.

Maiatzaren 15ean, Gipuzkoako Finantzen Lurralde Kontseiluak 3/2020 Foru Dekretu-Araua aztertu zuen, bai eta horrek udal-finantzetan dituen ondorioak ere, Gipuzkoako udalen Udal Finantzaketarako Funtzaren bidez.

Gaur egun, inoiz baino gehiago, erakundeen arteko elkarrizketa beharrezkoa da pandemia honi modu koordinatu eta eraginkorrean erantzuteko.

Horregatik, Eudeleko Batzorde Eragilean jorratutakoa mahaigaineratu da, eta erabaki hauek hartzea proposatu da:

Mozioa

1. Eskatzea Gipuzkoan elkarrizketarako mahai instituzional bat sor dadila Foru Aldundiaren eta EUDEleko Gipuzkoako Lurralde Batzordearen artean, lurralde-eremu instituzionaletatik krisiari erantzuten dioten ekimenetan koordinazioa bultzatzeko, lankidetzara eraginkorra garatuz, eta herritarrentzat erakundeen arteko gobernantza hobea lortzeko.

2. 3/2020 Foru Dekretu Arauak Finantzen Lurralde Kontseilua aipatzen du azaroko kuota jorratu eta aztertzeke. Hala ere, euskal erakundeen arteko finantza-harremanak arautzen dituzten oinarriak ikusirik, eta kontutan hartuta krisialdiaren intentsitatea eta arrisku partekatuen printzipioa, inoiz baino gehiago beharrezkoa da, egoera ekonomikoari, diru-billetaren aurreikuspeni eta udalen egoerari buruzko informazioa partekatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu Finantzen Lurralde Kontseilua hiru hilean behin deitzeke.”

Hauek aztertu eta eztabaidatu ondoren, ikusirik, Udalbatzarrak, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- EH Bildu taldetik etorritako hiru zinegotziak bere taldeak aurkeztutako mozioaren alde bozkatzeko dute.

Bigarrena.-Zegama Lantzen taldeko bost zinegotziak, bere taldeak aurkeztutako mozioaren alde bozkatzeko dute. Horrenbestez, hau onartutzat geratzen da.

2021EKO TOKIKO JAI EGUNA FINKATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2021. urteko jaiegunen egutegia onartzeko den 56/2020 Dekretuko, 2. atalak ezartzen duenaren arabera, 2021. urteko jaiegunen egutegia osatzeko, lan ondorioetarako tokian tokiko jaietako bi egun ere, jaiegun izango direla adierazten da. Bi egun horien zehazpena, Lan eta Justizia Saileko lurralde ordezkariak egiten dute, Udal bakoitzak egiten dituen proposamen arabera.

Zentzu horretan, tokian tokiko jaieguna proposatzeko eskaera egiten da.

Guzti hori kontuan hartuz, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko hiru ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Ordezkaritza horri, Udalerrri honetako jaiegun bezala, 2021. urteko maiatzaren 24an 1a (Mendekoste Astelehena) proposatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau, Lan eta Justizia Saileko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea.

9.- GALDE-ERANTZUNAK.

- Alkateak, Partzoneriaren bileran hitz egindakoa azaltzen du. Bertan besteak beste ordenantzak lantzen ari direla azalduz. Aurten ere Partzonerian egon den ganadu gainkarga dela eta ganaduzaleek egindako eskaerei murrizketa lineala aplikatu zaie. Zegamak honen aurrean ordenantzetan gainkarga bat egoten bada murrizketak herri bakoitzak Partzonerian dituen portzioen arabera egitea proposatuko duela eta eta besteak beste izena emandako ganadu guztia igotzen ez dutenei zigorrak jartzea ordenantzetan jasotzea eskatuko duela adierazten du. Udalbatzarrak bere adostasun osoa adierazten du bi proposamen hauekiko.
- Imanol Garmendia Iurretagoiena zinegotziak (EH Bildu) , urtarrilaren 21eko bilkuraren aktan aipatu zenaren arabera, okindegi inguruko karga-deskargarekin sortutako arazoei buruz galdetzen du. Zentzu horretan aipatzen du kioskoaren vuelta osoa puskatuta dagoela. Alkateak erantzuten du, eremua erabiltzen duten okindegiko, Pagosako eta egunkariaren ibilgailu-arduradunekin hitz egin duela, plazarako sarbidea murriztu zaielarik (sarrera bat egunean). Horrenbestez, beste erabilera guztietan plazatik kanpo utzi beharko da ibilgailua.
- Bilkurakideak, okindegiaren alboan, zoru publikoan kokatu diren lorontziei buruz hitz egiten dute. Alkateak adieraztean du, hauek jarri dituen pertsonarekin hitz egin duela, eta hauek kentzeko izapideak bideratzeko asmoa dagoela.
- Alkateak, COVID-19aren egoeraren aurrean, zenbait Udal zerbitzu berriz ere martxan jartzeko aurreikuspenak ematen ditu. Zentzu honetan adierazten da,

liburutegia astelehenean irekiko dela. Eguneko Zentzroa ekainaren 8an berriz ere martxan jartzeko aurreikuspena dago. Frontoia, aurretiazko zitarekin irekita dagoela jakinarazten da. Gimnasioa oraingoz itxita dagoela azaltzen da. Bilkurakideak gaiaz hitz egiten dute.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zapiak eta boerrogei minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2020.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO